


FUNTSEZKO JARDUERA

Hasteko, gure enpresaren helburua dantza zerbitzu ona eskaintzea da. Dantza irakatsi nahi diegu pertsoneri, baina gure eskolan nahiz eta, edozeinek parte hartu ahal izan, taldeka banatuta egongo dira, bakoitzaren gaitasuna eta adinaren arabera. Horrela, ikasle bakoitzak **esperientzia kalitate** handikoa jasoko du, bere behar eta helburuak kontuan hartuta.

Guk **instalazio bikainak** edukiko ditugu. Egunero, garbitzaileek garbiketa-lanak egingo dituzte. Horrela, ikasleek beti ingurune garbian dantzatu ahal izango dute. Dantza klaseak egun osoan eskainiko dira. Klase bakoitzak ordu bateko iraupena izango du. Talde bakoitzak astean bi saio egingo ditu, eta ordutegiak ikasleekin adostutakoak izango dira.



Urte amaieran, **balorazio** bat egingo dute ikasleek eta horren arabera, taldeak egokituko dira ikasleen beharretara. Horrela, ikasleek dantza irakasteko modua hobetuko die irakasleeri.

Horrez gain, ikasleek gurekin erraz **komunikatzeko** aukera izango dute. Zalantza bat izanez gero, gurekin harremanetan jarri ahal izango dira posta elektroniko bidez, dei bat eginez edo zuzenean gure zentzura etorritik. Gure helburua ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua ematea da.



Dantza eskola ezaguna izateko mundu osoan zehar, **plataforma elektronikoak** eta sare sozialak erabiliko ditugu. Gainera, webgune bat izango dugu, eta bertan, bezeroek informazioa aurkitu, galderak egin eta gurekin harremanetan jarri ahal izango dute.

Gure dantza eskolan, kalitatezko irakaskuntza eta arreta pertsonalizatua kontuan hartzen dira. Talde desberdinetan banaketa, eta ordutegien egokitzapena dira gure ezaugarri nagusiak, ikasturte hasieran dena antolatzerako garaian, dantza ikasi nahi duten pertsonak kanpoko jarderekin batera dantza ikasteko denbora izateko.

Azkenik, **prestakuntza**, laguntza eta komunikazio-kanal guztiak martxan izango ditugu, dantza munduan eskola garrantzitsu bat izan nahi dugu, ikasleei benetako esperientzia baliotsua eskaintzeko eta mundu osoan zehar famatuak izateko, urteak aurrera joan ahal eta enpresa herrialde desberdinetan zabaltzeko.